

Udal-mailako justizia 1/2025 Lege Organikoaren ondoren: bake-epaitegietatik bake- epaileak laguntzen dituzten udal-mailako justizia- bulegoetara. Zaharrak berri?

Ixusko Ordeñana Gezuraga¹, Leire Gutierrez Molina²

¹EHUko Zuzenbideko irakaslea, katedraduna,

²Deustuko Unibertsitatean irakasle laguntzaile doktorea

1/2025 Lege Organikoak udal-mailako justizia eraldatu du. Izan ere, gogor kritikatuak izan diren bake-epaitegiak ezabatu ditu, eta, haietatik abiatuta, bi elementuz osaturiko bake-justizia bat sortu du. Zehazki, udal-mailako justizia-bulegoek eta bake-epaileek osaturiko gertuko justizia bat. Udal-mailako justizia-bulegoak unitate administratibo gisa konfiguratu diren arren —bake-epaitegien izaera jurisdikzionala atzean utziz—, azken momentuan, desagertzeaz zegoen bake-epailearen figura mantentzearen aldeko erabakia hartu da, orain arte izan dituen antzeko eskuduntzak esleitzuz. Artikulu honen xedea bikoitza da: alde batetik, bake-epaitegien eraldaketa aztertzea, eta bestalde, egungo bake-justizia osatzen duten bi elementuak kontuan hartuz, legeak benetako aldaketarik dakarren ondorioztatzea.

GAKO-HITZAK: Udal-mailako justizia · Bake-epaitegia · Udal-mailako justizia-bulegoak · Bake-epailea.

Justice in municipalities after Organic Act 1/2025: From Peace courts to Municipal Justice Offices which assist peace judges. Does it bring real change?

Organic Act 1/2025 has transformed the Spanish municipal justice system. In fact, the law has eliminated the heavily criticized peace courts and, building upon them, has created a municipal justice system composed of municipal justice offices and peace judges. While the municipal justice offices have been established as administrative units, moving away from the jurisdictional nature of the former peace courts, at the last moment —when peace judges were on the verge of disappearing— the lawmaker decided to retain peace judges, assigning them similar powers to those they previously held. The purpose of this article is twofold: on the one hand, we will analyze the transformation of peace courts, and, on the other, we will try to assess whether the Law introduces any substantive changes to the Spanish municipal justice system, considering the two components that now constitute the peace justice framework.

KEY WORDS: Justice in municipalities · Peace court · Municipal justice office · Peace judge.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.6027>

Jasotze-data: 2025-07-09

Onartze-data: 2025-07-28

1. Bake-epaitegien eraginkortasunik eza udal-justiziaren eraldaketaren abiapuntu

1.1. Efizientzia bila: azken urteotako justizia-erreformak

Azken urteotan, espainiar prozesalisten presentzia eta lana nabarmen handitu da hainbat lege-erreformaren ondorioz, horien artean, 1/2025 Lege Organikoak ekarritako aldagetaren kariaz.

Azken erreforma horien guztien jatorria 2021ean koka dezakegu, Estatuko gobernu-koalizioak (PSOE-Unidas Podemos) zuzenbideko estatua eta justiziarako sarbidea bultzatzeko 2030 Justizia Plana edo *Plan Justicia 2030*¹ aurkeztu zuenean. Espainiako Justizia Plana mundu-mailan ezarri ziren helburu eta proiektu handiago baten garapen nazionala da. Hau da, Nazio Batuen Erakundeak proposatutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren barnean kokatu beharra dago, bertan, Garapen Jasangarrirako Helburuen erdigunean politika publikoak jarri zirelako eta, horien artean, justiziaren ingurukoak barneratu zirelako².

2030eko Justizia Planaren helburu nagusia Justiziaren Zerbitzu Publikoa eraldatzea da, eta, horretarako, hiru azpihelburu konkretu ditu: justizia-zerbitzu publikoa herritarrei gerturatzea haren sarbidea erraztuz; justizia-zerbitzu publikoaren eraginkortasuna; eta, azkenik, jasangarritasun eta kohesioaren alde egitea. Hiru xede horiek lortzeko programa, proiektu eta azpiproiektuak aurreikusi dira³ eta hainbat lege onartu edo onartu nahi dira. Defentsa Eskubidearen Legearekin batera —5/2024 Lege Organikoa, azaroaren 11koa, Defentsa Eskubidearen ingurukoa⁴—, bereizgarriak diren lau lege nabarmen onartzea planteatzen du Planak. Hiru justizia-

1. Hamar urtez ezartzen den lan-plan bat da, justizia-sisteman eragin handiena duten edo zaharkituta geratu diren edo eraginkortasun gutxi duten puntuei eraginez, besteak beste, bake-epaitegiak. https://www.justicia2030.es/documents/107891/185900/justicia2030_dossier.pdf/eebcd1bd-29e7-5871-3d58-60bf5cbf9088?t=1621325866436 helbidean kontsulta daiteke Justizia Planaren inguruko dokumentu ofiziala, eta haren laburpen exekutiboa euskaraz https://www.justicia2030.es/documents/107891/185900/Resumen_ejecutivo_Euskera.pdf/e37e54e7-f8dc-f5b2-49bd-2ec5f2581c83?t=1621325851431 helbidean.

2. 2015eko irailaren 25etik 27ra New Yorken egindako goi-bilera baten ostean Nazio Batuen Erakundeak adostutakoaren fruitu izan zen Garapen Jasangarrirako agenda. Haren helburua pertsonen, planetaren eta oparotasunaren alde egitea da, aldi berean, mundu-mailako bakea eta justiziarako sarrera indartzea bilatzen duen bitartean. Txirotasunarekin amaitzea xede du, hura gabe, ezinezkoa delako garapen jasangarria lortzea. Agendak 17 helburu espezifiko ezartzen ditu, eta helburu bakoitza lortzeko jomuga espezifiko batzuk ezarri dira hamabost urtetan lortzeko (guztira 169 jomuga daude). Justizia 16. helburuan lantzen da, xedea gizarte justuak, baketsuak eta inklusiboak lortzea da. <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/> helbidean kontsulta daitezke Nazio Batuen Erakundeak ezarritako garapen jasangarrirako helburuak.

3. Ordeñana, 2023, 78. or. eta hurrengoetan 2030 Justizia Planaren deskribapen sakonagoa egin daiteke. Madrid Boquín-en (2024) artikuluan azpimarratzen da Justiziaren Zerbitzu Publikoaren erdigunean kudeaketa ezarri dela, justizia eraginkorragoa egitea bilatzen delarik. Horretarako eraldaketa digitala aprobetxatzea aurreikusten da, hark antolaketa malguagoa eta prozesu jarraituagoak lortzea ahalbidetzen baitu.

4. Zuzenbideko estatuarekin hertsiki lotuta dagoen eskubidea da defentsa-eskubidea, eta babes eraginkor judicialarekin batera, herritarron oinarritzko eskubide bat da gure babeserako. Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan aintzatesten den oinarritzko eskubide baten garapena da lege hau, haren hitzaurreak adierazten duen moduan.

zerbitzu publikoaren eraginkortasuna lortzeko —eraginkortasun prozesalaren legea, antolakuntza-eraginkortasunaren legea eta eraginkortasun digitalaren legea— eta Zigor-arloko Prozedurari buruzko Lege berria —aurrerantzean, ZPL—.

Egun, Estatuak, eraginkortasun prozesala lortzeko neurriak lege bakar batean bildu beharrean, zenbait arautan jaso ditu. Lehenik, 5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa⁵ onartu zuen; ondoren, 6/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa⁶, eta, azkenik, gure artikuluen euskarri den 1/2025 Lege Organikoa⁷. Hala ere, azken lege horretan eraginkortasun prozesala lortzeko neurriak besterik ez da aurreikusi⁸, eta justiziaren antolaketa eraginkorragoa lortzeko neurriak ere hartu dira, Botere Judizialaren Lege Organikoan aldaketak ekarriz —aurrerantzean, BJLO—.

Gure artikuluen muina antolaketa eraginkorragoa lortzeko ahaleginetan kokatzen denez, 1/2025 Lege Organikoak helburu hori lortzeko dakartzan hiru elementu nagusiak aipatzeko beharra dagoela deritzogu⁹. Lehenik, epaitegiak edo pertsona bakarreko organo judizial oro ezabatu ditu eta, horien ordeztan, oinarritzeko egitura judizial gisa instantziako auzitegiak eta Instantziako Auzitegi Zentrala ezarri ditu. Horrela, herritarrok, behin «justiziara sartu» garenean, justiziaren lehen mailan ez ditugu pertsona bakarreko organoak aurkituko, baizik eta organo kolegiatuak¹⁰. Bigarrenik, bake-epaitegiak ezabatu edo, modu batera edo bestera, eraldatu ditu. Ikusiko dugun moduan, horien ordeztan, justizia-bulegoak ezarri ditu¹¹. Eta, azkenik, bulego judizialak herri-mailako justizia-bulegoetara egokitu ditu.

Esandakoa kontuan hartuta, 1/2025 Lege Organikoaren testuak harritu egin gaitu; izan ere, bake-epailea mantentzearen aldeko apustua egin du, nahiz eta 2030eko Justizia Plana eta Lege Organikoaren proiektua aurretik hura ezabatzearen alde agertu. Hasiera batean, 2030 Justizia Planak ez zuen bake-epaitegientzat —ezta bake-epaileentzat ere— lekuri uzten, oro har, datuek erakutsi dutelako justizian daukaten ekarpena eskasa dela. Hots, haien eraginkortasun-gabezia errealitate bat

5. Gaztelaniaz, arauaren izenburu osoa hau da: Real Decreto-ley 5/2023, de 28 de junio, por el que se adoptan y prorrogan determinadas medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania, de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad; de transposición de Directivas de la Unión Europea en materia de modificaciones estructurales de sociedades mercantiles y conciliación de la vida familiar y la vida profesional de los progenitores y los cuidadores; y de ejecución y cumplimiento del Derecho de la Unión Europea. Bertan, ikus daiteke Espainiako Estatuak hartu duen bidea arau bakar batean izaera ezberdineko hainbat neurri hartzeko. Arauaren VII Tituluan zigor-arloko, administrazio-arloko, arlo zibileko eta lan-arloko prozesuen erreformak ikus daitezke.

6. Gaztelaniaz, arauaren izenburu osoa hau da: Real Decreto-ley 6/2023, de 19 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia en materia de servicio público de justicia, función pública, régimen local y mecenazgo. Bertan, besteak beste, eraginkortasun digitala eta prozesala lortzeko neurriak barneratu ziren.

7. Gaztelaniaz: Ley Orgánica 1/2025, de 2 de enero, de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia.

8. Oro har, judizioz kanpo negoziazio-ahaleginak egin izana eta hura egiaztatzea demanda zibila oro aurkeztu aurretik. Hala ere, beste ordenetan ere, erreforma prozesalak aurreikusi ditu —zigor-, administrazio- eta lan-arloan—.

9. Lege Organikoaren 1. artikuluan biltzen dira hauek guztiak.

10. BJLOren 26. artikulua eta, sakonago, 84. artikulutik aurrera. Instantziako auzitegietan sakontzeko: Barona, 2023, 29-58. or. eta Barona, 2024, 173-205. or.

11. Horietan sakontzen du Andrea Planchadell Gargallo-k (2025, 123-139. or.).

dela¹². Baina, azkenik, 1/2025 Lege Organikoak beste bide bat jorratu du, bake-epaitegiak ezabatu dituen arren —haien lekuan justizia-bulegoak ezarriz—, bake-epaileak mantendu dituelako¹³, erreinurik gabeko erregina bezala utziz¹⁴.

1.2. Bake-epaitegien sorrera, biziraupena eta 1/2025 Lege Organikoaren eragina

1.2.1. Jatorritik 1978ko Espainiako Konstituziora arte

Bake-epaitegiak justizia herri-mailan egiteko eta justizia herritarrengana hurbiltzeko baliabide izan dira¹⁵. Hala ere, Espainian, herri-mailako justizia jaio zenean, XI. mendean, epaitegi hauek oraindik ez ziren existitzen. XI. mendetik 1812ko Cadizko Konstituzioa onartu zen arte, herrian gertatzen ziren gatazka zibil txikiak ebazteko eta zigor-arloko lehen eginbideak egiteko ahalmen jurisdikzionala alkateek zuten (Vizcaino, 1784). Egoera hori 1812an aldatu zen, Cadizko Konstituzioak, lehen aldiz, botere-banaketa Estatuan aintzatetsi zuenean eta, beraz, botere exekutiboa eta botere jurisdikzionala banatu behar zirelako.

1812tik aurrera, hortaz, ahalmen jurisdikzionala epaileek eskusiboki izan zuten. Alkateek, orokorrean, adiskidetze-funtzioak besterik ez zuten mantendu. Nolanahi, 1812tik 1855era, arrazoi ekonomikoak zirela eta, organo bakar batean metatu ziren herri-mailako funtzio administratibo eta jurisdikzionalak.

1855. urtera arte itxaron behar izan genuen bake-epaitegiak lehenengoz azaltzeko. Zehatz-mehatz, 1855eko Prozedura Zibilaren Legeak —aurrerantzean, PZL— aipatu zituen lehen aldiz, 600 errealeko gatazka zibilak ebazteko hitzezko epaiketa sortu zuenean. Prozedura hura bake-epaitegien eskuduntza bezala aurreikusten zen, alkateei, berariaz, hura kenduz eta, behingoz, funtzio administratiboak eta judizialak banatuz (1162-1180. artikulua). Alabaina, PZL argitaratu zenean, bake-epaitegiak ez ziren formalki existitzen. 1855eko urriaren 22ko Errege Dekretuaren ondorioz eratu ziren. Errege Dekretuak bake-epaileak udaletxeak zeuden herri orotan egongo zirela ezarri zuen —PZLk aurreikusitako eskuduntzekin— eta haren zein haren ordezkoren karguak arautu zituen. Hasieran funtzio zibil gutxi batzuk

12. Espainian dauden 7.700 bake-epaitegiek 2024an 762.305 afera ebatzi zituzten. Gehiengo, arlo zibileko exhortoak edo aginduak izan ziren (697.590 edo guztizkoaren % 91,51) eta, haien atzean, adiskidetzeak (10.214 edo guztizkoaren % 1,34), ahozko epaketak (10.156 edo guztizkoaren % 1,33) eta gainontzeko aferak (44.345 edo guztizkoaren % 5,81). Ikus: <https://www.poderjudicial.es/stfls/ESTADISTICA/FICHEROS/3001%20Juzgados%20de%20Paz/A/C3%B1os%20Anteriores/Estadisticas%20Juzgados%20de%20Paz%20SERIES%20NACIONAL.XLS?t=202507242453>

2030 Justizia Planaren 12. helburuak, «Justizia-bulegoak udalerrietan» izenburupean, nabarmentzen du bake-epaitegiek historikoki izan dituzten eskumenak Erregistro Zibileko laguntzaileei eta laguntza judizialaren bidez eskatutako komunikazio-egintza zehatzak gauzatzeari murriztu zaizkiela. Nolanahi, desjudizializazioa eta justizia elektronikoa ezartzea lortzen denean, bere funtzioak ezerezean geratuko direla azpimarratzen du. Bake-epaitegiek baliabide ekonomiko ugari erabiltzen dituzte, baina askotan herritarrek barruti judizialaren buru den udalerrira edo probintzia-hiriburura joan behar dute beren zereginak egiteko. Horrexegatik, bake-epaitegien ezabapena aurreikusten du eta justizia-bulegoen ezarpena.

13. Interesgarria iruditzen zitzaien Christa Maria Madrid Boquín-i (2024, 34-35. or.).

14. Ordeñana, 2025. Erreinurik gabeko erregina direla deritzogu bake-epaileek epaitegirik gabe biziraungo dutelako.

15. Juan Damián Morenoren lanean (1986), 25. orrialdetik aurrera bake-epaileen eta gertuko justiziaren bilakaera sakontasunez azaltzen da.

esleitu zitzaizkien eta, ondoren, zigor-arloko funtzio batzuk —doitasunez, 1855eko azaroaren 12ko Aginduaren bitartez, falta arinez arduratzea eta lehen eginbideen praktika esleitu zitzaizkien—.

Hala ere, 1856ko urtarrilaren 2an, Errege Agindu batek bake-epaileen izendapenak eten zituen, haiek egiteko era ez zelako begi onez ikusten. Batik bat, izendapenak politikaren menpe egotea, independentzia falta eta aukeratzen ziren pertsonen egokitasun falta kritikatu ziren, bake-epaileak ez zuelako Zuzenbidean aditua edo teknikaria izan behar.

Urteak pasa ahala, gehiegizko politizazioa eta bake-epaileak profesionalizatzeko desioa bi kritika nagusi bihurtu ziren, hainbat dekretu, agindu eta beste izaera bateko arauetan islatu zirelarik. Arau guztien artean, hiru nabarmendu ditzakegu: 1870eko BJLO, 1907ko abuztuaren 5eko herri-mailako justizia-legea eta 1944ko herri-mailako legea. Hiruretatik zera ondoriozta daiteke: bake-epaitegien existentzia eta izatearen arrazoa betidanik jarri izan da kolokan eta haien funtzioa beti izan da berbera, labur esanda, Espainiako herri guztietan presentzia judiziala bermatzea. Haien eskuduntzak eskasak izan dira, orokorrean, judizioz kanpoko gatazkak ebaztea eta organo judizialei laguntza ematea izan dute helburu. Nolanahi, legelariak eta juristek azaldu zuten moduan, eskuduntza gutxi izatearen arrazoa bake-epailearen formazio falta izan da, horrek eskuduntza gehiago esleitzea ekiditen zuelako.

1.2.2. 1978ko Espainiako Konstituziotik 1/2025 Lege Organikora arte

Espainiako Estatura demokrazia heldu arte, 1978ko Espainiako Konstituzioaren eskutik —aurrerantzean, EK—, bake-epaitegien modeloak, edo beste era batean esanda, herri-mailako edo gertuko justiziak etorkizun iluna izan zuen diseinatuta zegoen bezala. 11/1978 Legeak bake-epaitegiak ia-ia ezabatzea lortu zuen, baina, dakigun moduan, azkenik, bere horretan biziraun zuten.

Egungo BJLO egin eta onartu nahi izan zenean, legebiltzarreko eztabaidan bi posizio agerian geratu ziren. Alde batetik, antolaketa judiziala aldatu nahi zutenak eta, bestetik, mantentzearen alde zeudenak. Nahiz eta, susmatuko denez, bigarren sektorekoak gailendu ziren, bi sektoreek arrazoi ezberdinak eman zituzten haien iritzia defendatzeko. Bake-epaitegiak kendu nahi zituztenek —kontrako sektoreak— bake-epailearen profesionaltasun faltari edo Zuzenbidean teknikaria izan behar ez izateari eman zieten garrantzia. Argudiatu zuten ordenamenduak formakuntza hura ez galdatzeak bake-epailea ezgai egiten zuela gatazka juridikoak bermeekin ebazteko eta, ondorioz, berdintasun-printzipioa urratzen zuela. Sektore horietan kokatzen zirenen aburuz, ez zegoen baliozko arrazoirik biztanleen arteko ezberdintasunik ezartzeko; izan ere, barrutietako buru ziren herrietako biztanleek epaile teknikoez gozatzen zuten, eta gainontzeko herritarrek, aldiz, bake-epaile legoetan konfiantza izan behar zuten. Bake-epaileen izaera ez-profesionalak EKK epaile eta magistratuei galdatzen zien independentzia, erantzukizuna eta legearekiko mendekotasuna bermatzea oztokatzen zuen. Formakuntza faltarekin batera, udalarekiko independentzia-gabezia ere oso kritikatu izan zen, bereziki, izendapenak udalak egiten zituelako diskrezionaltasunez. Ez zen meritu berezirik galdatzen bake-epaile izateko, posible zelarik alkatearen edo udal-bilkuraren gehiengoaren laguna zen hori izendatzea, haren gaitasuna eta esperientzia kontuan

izan gabe. Bi argudio erabili horietaz gain, kostu-eraginkortasunaren faktoreari ere erreparatu zioten, bake-epaitegien kostu altuek eta eskuduntza eskasek organoen eraginkortasun falta agerian uzten zutela azalduz. Komunikabideen hobekuntza ere bake-epaitegiak ezabatzeko arrazoiak zela uste zuten, jada ez baitzen beharrezkoa Espainiako udal guztietan epaitegi bat egoterik. Azkenik, plazaratu zuten bake-justizia ezin zela EKren 125. artikulua oinarri hartuz justifikatu. Hots, herritarrek Justizia Administrazioan parte hartzeko modu bezala (Ordeñana, 2023, 349. eta 350. or.).

Bake-epaitegiak defendatzen zituztenak lau arrazoi nagusitan oinarritu ziren haien biziraupena luzatzeko. Lehenik, eta funtsean, justizia herritarrei gerturatzeko beharra zegoela adierazi zuten, bereziki, distrituko epaitegiak kendu zirenez geroztik. Izan ere, horrek eragingo zuen barruti-buru ez ziren herrietan organo judizialik ez egotea. Bigarrenik, gatazka pribatu txiki eta zigor arau-hauste txikiak ebazteko justizia bat beharrezkoa zela nabarmendu zuten, Zuzenbidea ezarri bainoago, ekitate edo zuzentasunean oinarritzen zena. Hirugarrenik, argudiatu zuten bake-justizia herritarrek Justizia Administrazioan parte hartzeko modu bat zela. Nolanahi, laugarren ideia izan zen bake-epaitegiak mantentzearen aldeko erabakia hartu izanaren funtsa: bake-justizia beste organo jurisdikzionalei laguntzeko formula merkea zen. Beraz, faktore ekonomikoa izan zen bake-epaitegiak zeuden bezala mantentzearen arrazoi nagusia, ezinezkoa baitzen —garestia zelako— bake-epaitegi guztiak epaile teknikoak hornitzea.

Eztabaida politiko honek, urteak pasa ahala, ildo beretik jarraitu du, aurrerapenik gabe, nahiz eta epaitegiek eskuduntzak, pixkanaka-pixkanaka, galdu dituzten. 1995eko Zigor Kodearen kariaz —jagoitik, ZK—, adibidez, zigor arau-hauste txikiak —faltak, alegia— ebazteko eskumena galdu zuten, faltak desagertu baitziren¹⁶. 1995ean, baita ere, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak *Justizia Liburu Zuria* argitaratu zuen eta bake-justizia araututa zegoen bezala aurkezten zituen ahultasun nagusiak jaso zituen, nahiz eta, onartu, momentuan, bake-justizia espainiar justiziak pairatzen zuen arazorik larriena ez izan. Hurrengo hebaundurak azpimarratu ziren: bake-epaileen profesionalizazio-gabezia¹⁷; bake-epaileak laguntzen dituzten pertsonen kualifikazio desberdina¹⁸; bake-epaitegien idazkaritza-elkargoak sortzeko irizpide zabalak¹⁹ eta haien prekariedade ekonomikoa²⁰. Horrela, *Liburu Zuriak* bake-

16. Haren berri eman genuen: Ordeñana, 2012, 1645-1668. or.

17. Garestia zenez epaile teknikoak udal guztietan izatea, bake-epaileen profesionalizazioa ez zen aurrera eraman.

18. Izan ere, udalerriaren biztanleriak eta lan-kargak baldintzatzen zuten bake-epaileari euskarri ematen zioten pertsonen kualifikazioa. 7.000 biztanle edo gutxiagoko herrietako bake-epaitegiaren udalaren mendeko langileek egiten zuten lan. Aldiz, 7.000 biztanle baino gehiagoko herrietan eta lan-kargak justifikatzen zuen bake-epaitegiaren, zerbitzuak eskainiko zituztenak Justizia Administrazioaren zerbitzura zeuden funtzionario teknikoak ziren (Demarkazio eta Planta Judizialari buruzko Legearen 51. art.).

19. Idazkaritza-elkargoek gertuko udalei ahalbidetzen zieten haien bake-epaitegien idazkaritza-zerbitzuak partekatzea, kudeaketa eraginkorrago bat izateko eta baliabideak optimizatzeko. Otsailaren 19ko 257/1992 Errege Dekretuak arautzen zituen bake-epaitegiaren idazkaritza-elkargoak eta, zehazki, haiek ezartzeko irizpideak 2. artikuluan biltzen ziren. Besterik gabe, elkargoa osatzeko haiek eratzen zituzten bake-epaitegiak barruti judizial bereberekoez izatea eta herriak mugakideak izatea eskatzen zen.

20. Biztanleriaren arabera kalte-ordain txikia jasotzen zuten ordainsari gisa, ezinezkoa izanik bake-epaile gisa, besterik gabe, bizitzea. CPJG, *Libro Blanco de la Justicia*, 134. or. Eskuragarri: https://www.castillalamancha.es/sites/default/files/documentos/pdf/20161220/2._libro_blanco_de_la_justicia_documento_no_2.pdf

epaitegien etorkizuna birpentsatzera gonbidatzen zuen: batetik, haiek ezabatuz edo, bestetik, haien eskuduntzak handituz. Bigarren kasuan, izendatzeko prozesua eta irizpideak aldatzea gomendatzen zuen. Epaitegiaren pertsona titularra —bake-epailea— Justizia Auzitegi Nagusien Gobernu Salak izendatzeko proposatzen zuen udalek aurkeztutako hautagai-zerrenda batetik abiatuta eta Zuzenbidean graduatua izatea meritu preferente moduan ezarri (Sánchez, 2001).

Nolanahi, bake-epaitegiak bere horretan mantendu ziren. 2006an argitaratu zen BJLO aldatzeko lege-proiektuak, adibidez, gertuko justizia eta bake-epaitegiak mantentzearen alde egin zuen²¹.

Beranduago, 2009an, Ministro Kontseiluak batzorde bat izendatu zuen Demarkazio eta Planta Judizialeko Lege berri bat egiteko beharrezko elementuak zehaztu, aztertu eta proposatzeko. Batzordearen behin betiko txostenak bost gomendio nagusi bildu zituen lege berria gorpuzteko eta zehazki adierazi zuen bake-epaitegiek, hertsiki, organo judizial bezala, babes eraginkor judiziala eskaintzen oso paper txikia zutela, haien funtzio erregistrala desjudizializazio-prozesuan zegoela, haien funtzioak praktikoki sinbolikoak zirela eta haien titularren —bake-epaileen— izaera ez-profesionalak eskumenak areagotzea oztopatzen zuela. Hortaz, bake-epaitegien desagertzearen alde egiten zuen. Justiziara sartzean herritarrok topatzen ditugun lehen organo judizialek lan-karga handiagoa izan behar zutela argudiatzen zuen batzordeak, epaileek izaera tekniko edo profesionala izan behar zutela eta organoen lurralde-esparruak arrazionalagoa izan behar zuela. Alabaina, bake-epaileak aldaketa horren kaltetu izango zirenez gero, txostenean proposatu zen bake-epaileek gatazkak era baketsu batean ebazteko funtzioa bete zezaten. Hots, lege-proposamen horrek, 1/2025 Lege Organikotik oso gertu, bake-epaitegiak kendu nahi zituen, baina bake-epaileak mantenduz, adiskidetze-funtzioak edo judizioz kanpoko gatazken ebazpena erraztu ahal izateko.

2011n BJLO aldatzeko Lege Organiko Proiektua aurkeztu zen, instantziako auzitegiak sortzea helburu zuena²². Proiektuak pertsona bakarreko organoetan oinarritutako modelo judiziala gainditu nahi zuen eta, instantziako auzitegien bitartez, antolaketa kolegiatu bat ezarri. Formula honek arrazionalizazioa areagotzeko zuen jurisdikzioa egikaritzean eta auzitegi kideen artean irizpide komunak ezartzea erraztuko zuen. Hala ere, ez zituen bake-epaitegiak ezta bake-epaileak ukitzen. Beterik gabe, proiektua bake-epaitegiez arduratzera eta haiek beste organoekiko zituzten harremanak arautzera mugatu zen.

2014an, Mariano Rajoyren legealdiaren barruan, BJLO aurreproiektua onartu zen. Aurreproiektuaren helburua 1985eko Lege Organikoa ordezkatzeko zen, sistema judizialaren eraginkortasuna eta bizkortasuna areagotzeko. Bake-justizia eta bake-

21. 121/000071 Lege Organiko Proiektua, 6/1985, uztailaren 1eko, Botere Judizialaren Lege Organikoa moldatzen zuena, gertuko justizia eta justizia-kontseiluen arloan (*Diputatuaren Kongresuko Aldizkari Ofiziala*, A seriea, 71-1. zenbakia, 2006/01/27). Testu ofiziala: https://www.congreso.es/es/busqueda-de-publicaciones?p_p_id=publicaciones&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&_publicaciones_mode=mostrarTextoIntegro&_publicaciones_legislatura=VIII&_publicaciones_id_texto=CDA20060127007101. CODI.

22. 121/000144 gisa identifikatua eta *Gorte Orokorren Aldizkari Ofizialean* argitaratua, 2011ko abuztuaren 2an. Aurreproiektuaren inguruan ikus Asencio, 2011.

epaileei dagokienez, aurreproiektuak biak alde batera uztea zuen helburu; izan ere, Justizia Administrazioaren profesionalizazioak bake-epaileak desagertzea eskatzen zuen²³. Aurreproiektuak instantziako epaileak probintzietan zentralizatu nahi zituen, barruti judizialak, bake-epaitegiak eta gertuko justizia desagerraraziz²⁴. Hala ere, aurreproiektua ez zen aurrera atera.

Azkenik, 2021eko maiatzean 2030 Justizia Plana aurkeztu zen. Justizia Planak, bake-epaitegien eraginkortasun-gabezia zela eta, bake-epaitegien ordezkari izango ziren herri-mailako justizia-bulegoak ezarri nahi zituen eta bake-epaileak desagerrarazi. 2022an aurkeztutako antolaketa-eraginkortasunerako lege organikoaren proiektuak adierazi zuen herri-mailako justizia-bulegoek, momentura arte, bake-justiziak beteriko funtzio soziala beste ikuspegi batetik beteko zutela, bake-epaitegiak ordezkatzuz, justizia-zerbitzua moldatuz eta bake-epaileen figura desagerraraziz. Edozelan ere, aurreratu dugun eran, azkenean, 1/2025 Lege Organikoak bake-epaileak mantendu ditu. Baina, zergatik?

2. Bake-epaileen figura ezabatzetik, hura mantentzera: ustekabeko erabakiaren zergatia

Bi arrazoi nagusirengatik harrigarria egin zaigu 1/2025 Lege Organikoak ezarritako arauketa. Batetik, esperientziak erakutsi digu bake-epaitegien ekarpena sistema judizialean eskasa izan dela eta, hortaz, ez genuen espero eraginkortasuna bilatzen duen legeak haren xedearen kontrakoa den elementurik mantentzea²⁵. Bigarrenik, bake-epaitegien modeloa hobetzeko aukerak falta ziren eta falta dira, batik bat, bake-epaileei ez zaielako formazio juridikorik eskatzen eta, beraz, ezin zaielako eskuduntza gehiago esleitu. Alabaina, faktore hauek ez dute oztopatu, epaitegi gabe bada ere, bake-epailea mantentzearen aldeko azken orduko erabakia.

2024ko martxoaren 22an argitaratu zen lege-proiektuak bake-epaileak ezabatzen eta bake-epaitegiak udal-mailako justizia-bulego bihurtzen zituen. Nolanahi, azaroaren 4ko Justizia Batzordeko Sesioak egoera aldatu zuen, sozialistak Junts Per Catalunya talde parlamentarioarekin akordio batera heldu baitziren. Katalanen lerro gorri bat bake-epaitegien ezabapena zen. Ez zeuden ados instantziako auzitegirik ez zegoen herrietan bake-epaitegiak kentzearekin, oro har, Kataluniako Autonomia Estatutuaren 108. artikulua edukia hustuko zukeelako —xedapenak bake-justizia eta gertuko justizia Generalitatearen eskuduntza moduan aintzatesten

23. Zioen azalpenaren 3. atalak hala adierazten zuen.

24. Aurreproiektuaren 12. xedapen iragankorrak aurreikusten zuen zer gertatuko zen bake-epaitegi eta bake-epaitegien idazkaritza-elkargoaren funtzioekin legea indarrean sartu arte. Hiru elementu aurreikusten zituen. Batetik, bake-epaitegi eta bake-epaitegien idazkaritza-elkargoaren funtzio jurisdikzionalak Lehen Auzialdiko Epaitegiei esleitu zizkizkien. Bigarrenik, Erregistro Zibilararen inguruko funtzioak mantenduko zituzten 20/2011 Legea indarrean sartu bitartean. Hirugarrenik, bake-epaitegiaren edo bake-epaitegien idazkaritza-elkargoetan lan egiten zuen pertsonala Jakinarazpen eta Enbargoen Zerbitzu Komunitaria adskribatzen zuen.

25. 2024ko datuek erakutsi digute, adibidez, euskal bake-epaitegiek urte hartan ebatzitako gatazkak. Zehazki, 58.476 zigor exhorto edo agindu, 1.398 bestelako zigor-gatazka, 387 ahozko epaiketa, 37.834 zibil exhorto edo agindu eta 1.070 bestelako gatazka zibil (ikus CGPJ, *La justicia dato a dato. Año 2024*, 88. or. [online], <https://www.poderjudicial.es/stfls/ESTADISTICA/FICHEROS/JusticiaDatoaDato/Justicia%20Dato%20a%20Dato%202024.pdf>).

ditu— eta, aldi berean, Katalunian, zortziehun bake-epaile baino gehiago kalean utziko litzukeelako²⁶. Bi argudio horiek oinarri hartuz, bi talde parlamentarioek adostu zuten, batetik, Generalitatearen eskuduntza bere horretan mantentzea eta, bestetik, bake-epaileen figurari Estatu osoan eustea.

Akordio politiko soil batek eragin du, hortaz, lehen aldiz, organo judizialik ez duten epaileak existitzea eta sistema judizialaren parte izaten jarraitzea. BJLOren 99. artikulua instantziako auzitegirik ez dagoen udalerrietan ahalmen jurisdikzionala egikartzeko eskuduntza aitortu die eta, aitzitik, eragin du ahalmen jurisdikzionala auzitegiez gain, pertsona fisiko batzuek —bake-epaileek— ere izatea (BJLO 26. art.). Bake-epaileak ez dira ezein auzitegitan integratuko, baina funtzio jurisdikzionalak —gatazka zibil eta penalez arduratzea— eta jurisdikzioz kanpokoak —arlo zibileko eta zigor-arloko adiskidetzeak— izango dituzte, posible dutelarik prebentzio- edo delegazio-arrazoiengatik zigor-arloan aritzea (BJLO 100. art eta PZL 47. art.). Bake-epaileak udal-mailako bulegoen —administrazio-organoko batzuen— laguntza izango dute haien funtzio jurisdikzionalak betetzeko.

Jarraian, justizia-bulegoen eta bake-epaileen arauketa aztertuko dugu jakiteko ea egungo gertuko justiziaren modeloak benetako aldaketarik dakarren —aurrekoarekin erkatuz— eta eraginkortasunaren alde egiten edo egin dezakeen.

3. Udal-mailako justizia-bulegoen eraentza

3.1. Ezaugarri nagusiak: jatorria, izaera, kokapena eta antolaketa

Lege Organikoaren hitzaurreari jarraituz²⁷, udal-mailako justizia-bulegoak justizia gertuago bat eskaintzeko eta gizarteak dituen beharrei era egokiago batean erantzuteko eratu dira. Helburua da biztanle gutxi dituzten herrietan —bereziki, *hustutako Espainian*²⁸— bizi diren pertsonak hiriburuetara ez joatea Administrazioaren aurrean egin behar dituzten izapideak edo zereginak egiteko. Horrexegatik, bulegoak eginbide prozesalak eta interbentzioa galdatzen dituzten eginbideak egiteko beharrezkoak diren baliabide teknologikoz hornitzen dira (Flors, 2025, 19. or.). Aurrerapen teknologikoak aprobetxatzen ditu, beraz, justizia jasangarriago bat eskaintzeko. Tokian-tokiko eremuan, Justizia Administrazioaren kontaktu-puntuak dira.

Udal-mailako justizia-bulegoak bake-epaitegien idazkaritzetatik —edo, bere kasuan, idazkaritza-elkargoetatik— abiatuta sortzen dira. Izaera juridiko administrazioa izango dute eta ez daude bulego judizialean integraturik. Justizia Administrazioaren antolaketa baino sortzen diren unitateak dira eta kokatuta dauden udaleko herritarrei zerbitzuak eskaintzeko sortzen dira (BJLO 439 ter 1. eta 2.

26. Nahiz eta Katalunian 898 bake-epaitegi —eta, beraz, bake-epaile— egon, Estatuan 7.700 bake-epaitegi inguru daude eta Euskal Autonomia Erkidegoan 237 (ikus CGPJ, *La justicia dato a dato. Año 2024*, 14. or. [online], <https://www.poderjudicial.es/stfls/ESTADISTICA/FICHEROS/JusticiaDatoaDato/Justicia%20Dato%20a%20Dato%202024.pdf>).

27. Hirugarren atala.

28. Espainiako landaguneetan despopulazioa edo jende-hustea ekiditeko, administrazio-zerbitzuak areagotzea beharrezkoa da (Flors, 2025, 107. or.).

art.). Izan ere, bake-epaitegien antzera, Espainiako herri guztietan egongo dira, instantziako auzitegi bat dagoen horietan izan ezik (BJLO 99. art.).

Bake-epaitegietatik ezberdintzen dituen ezaugarri nagusia, beraz, haien izaera ez-jurisdikzionala da. Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzeko, inongo funtzio jurisdikzionalik ez duten unitateak dira. Hori dela eta, udal-mailako justizia-bulegoak ez dira BJLOren 26. artikuluan ageri. Hau da, ez dira ahalmen jurisdikzionala aintzatetsia daukaten auzitegien zerrendan agertzen —nahiz eta, ikusitako moduan, bake-epaileak bai agertu—. Era berean, haien izaera ez-jurisdikzionalaren ondorioz, esleituta dituzten zereginen inguruan aritzen garenean, zerbitzuez mintzatuko gara, eta ez eskumen edo eskuduntzez, funtzio ez-jurisdikzionalak baitira.

1/2025 Lege Organikoaren 35. azken xedapenari jarraikiz, Gobernuak 6 hilabeteko epea dauka 1/2025 Legea indarrean sartu denetik udal-mailako justizia-bulegoak eraginkorki ezartzeko hartu beharreko neurri guztiak onartzeko, bereziki, antolaketa-eredu berria garatzeko eta pertsonala egokitzeko prozesua erraztera bideratutako neurriak onartzeko. Estatuak azken betebeharrak zehatz hori bete berri du ekainaren 24ko 530/2024 Errege Dekretuaren bitartez, zeinak bulego judizialak eta udal-mailako justizia-epaitegiak ezartzeko langileen antolaketa- eta estatutu-xedapenak ezarri dituen²⁹.

Horretaz gain, Lege Organikoak BJLOri xedapen gehigarri bat gaineratu dio: 24. xedapen gehigarria. Xedapen berri horrek segurtasun juridikoa bilatu nahian, bai bulego berrien, bai bake-epaitegien zereginak mugatzen ditu. Era horretan, adierazten du, behin udaletan justizia-bulegoak sortu direnean, bake-epaitegiei egindako erreferentzia guztiak justizia-bulegoei egiten zaizkiela ulertu behar dela, salbu funtzio jurisdikzionalen ingurukoak direnean. Hots, araudia bake-epaitegiek dituzten funtzio jurisdikzionalen inguruan mintzo denean, erreferentzia bake-epaileei eginga dagoela ulertu behar da.

Bestalde, aurreratu dugun moduan, udal-mailako justizia-bulegoak ez dira bulego judizialen parte, nahiz eta azken horien zeregina —unitate administratibo gisa, baita ere— funtzio jurisdikzionala sostengatzea edo laguntzea den. Lege Organikoak bulego berrien eta tradizionalki existitu diren bulegoen arteko harremanak arautzen ditu. Horrela, barruti judizialen buru diren herrietan —non udal-mailako justizia-bulegorik ez den egongo—, dagokion bulego judizialak beteko ditu udal-mailako justizia-bulegoak izango zituzkeen funtzioak (BJLO 435.5 art.). Bestetik, udal-mailako justizia-bulegoetako lanpostu-zerrendan, bulego ofizialarekin bateragarriak diren lanpostuak identifikatzeko beharra ezarri da (BJLO 439 quinquies art., BJLO 521.3 E eta 436.5 artikuluekin harremanetan).

Esandakoaren ildoari jarraituz, hiru egoera ezberdin bereiz ditzakegu zeregin jurisdikzionaletan lagunduko dituzten unitate administratiboak zeintzuk izango diren

29. Erreferentzia egiten diogu gaztelaniazko honi: Real Decreto 530/2025, de 24 de junio, por el que se adoptan las disposiciones organizativas y estatutarias del personal de la Administración de Justicia necesarias para implementar en las Oficinas judiciales y en las Oficinas de Justicia en los municipios el modelo de organización judicial establecido por la Ley Orgánica 1/2025, de 2 de enero, de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia. Xedapenak 1/2025 Lege Organikoaren 439 ter, 439 quater eta 439 quinquies artikuluek garatzen ditu.

oinarri hartuz. Lehenik eta behin, udal-mailako justizia-bulegoak dauden herriak izango ditugu. Kasu hauetan, justizia-bulegoak kokatuta dauden udalean dauden herritarrei haien zerbitzuak eskainiko dizkie —gogoratu beharra dago, herri hauek ezin izango direla instantziako auzitegien egoitza izan—. Bigarren hipotesi bezala, udal-mailako justizia-bulegoen elkargoak ditugu (BJLO 439 quinquies 3 art.). Udal-mailako justizia-bulegoen elkargo hauek Justizia Ministerioak edo justizian eskuduntza duten autonomia-erkidegoek sortu ditzakete. Elkargoa sortzeko beharrezkoa izango da udal-mailako justizia-bulegoak kokatzen diren herriak mugakideak izatea eta barruti judizial berekoak izatea. Elkargoaren funtzioa udal horietan kokatzen diren herritarrei zerbitzuak eskaintzea izango da (BJLO 439 quinquies 3. art.). Horrela, esan dezakegu, udal-mailako justizia-bulegoak bake-epaitegien idazkaritzen bilakaera direla eta udal-mailako justizia-bulegoen elkargoak bake-epaitegien idazkaritza-bulegoen elkargoen eboluzioa. Hirugarren eta azken egoera posiblea instantziako auzitegien egoitza dagoen herrietan emango da; izan ere, hainbat aldiz esan dugun bezala, hauetan ez da udal-mailako justizia-bulegorik egongo. Horiek eskaini beharko lituzketen zerbitzu administratiboak —439 quater artikuluan biltzen direnak— bulego judizialek eskaini ditzakete (BJLO 435.5 art.). Deigarria da, kasu honetan, arauak erabiltzen duen aditza, ahalera forman erabiltzen baitu. Horrela, badirudi, kasu hauetan zerbitzu hauen eskaintza borondatezkoa edo hautazkoa dela, baina ez derrigorrezkoa.

Justizia-bulegoen antolaketari helduz, azkenik, uste dugu beharrezkoa dela errepikatzea bake-epailea ez dela udal-mailako justizia-bulegoko kide izango eta are gutxiago titular. Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoaren parte den pertsona batek zuzenduko du bulegoa eta, horrez gain, langile-plantilla bat izango du. Bake-epailea antolaketa-egitura funtzional honen kanpo geratuko da, nahiz eta, landuko dugun moduan, horrek, bere funtzio jurisdikzionalak bete ahal izateko, justizia-bulegoaren laguntza jaso dezakeen eta bulegoak dituen baliabideez goza dezakeen.

3.2. Baliabide materialak

Bake-epaitegientzat aurreikusten zen araudiaren oso antzera, udal-mailako justizia-bulegoen instalazio eta baliabide instrumentalak dagokion udalaren kargu egongo dira, salbu haren kudeaketa —guztiz edo zati batean— Justizia Ministerioak edo justizia arloan eskuduntza duen autonomia-erkidegoak egitea gomendagarria denean (BJLO 430 ter 3. art.). Beraz, arau orokorrean, bulego baliabide materialak udalen menpe egongo dira eta, salbuespenez, Justizia Ministerioaren edo dagokion erkidegoko kontseiluaren menpe.

Araudiak, baliabide material guztien artean, erreferentzia berezia egiten die baliabide informatikoei; izan ere, azaldutako moduan, aurrerapen teknologikoak aprobetxatuz gertuko justizia jasangarri bat eman nahi da —justiziaren digitalizazioa, bideokonferentzia-sistemak...—. Ildo horretan, BJLOk adierazten du Justizia Ministerioak edo justizian eskuduntza duten autonomia-erkidegoen Justizia Kontseiluek ahalbidetuko dituztela bulego judizialek beharrezkoak dituzten sistema eta ekipa informatikoak (BJLO 439 ter).

Amaitzeko, aipatzekoa da bulego judizialek behar dituzten baliabide materialen finantzaketa Estatuaren edo autonomia-erkidegoen aurrekontuen kargu egongo dela. Horretarako, beharrezkoa da aurrekontuetan, bulego judizialek udalei sortzen dizkien gastuei aurre egiteko kreditu bat espresuki zehaztea —bake-epaitegiekin gertatzen zen antzera—, haren zenbatekoa udalen biztanleriaren kopuruaren araberrakoa izango dena (BJLO 430 ter 4. art.)³⁰.

3.3. Baliabide pertsonalak

Pertsonalari dagokionez, Lege Organikoak bi eraentza juridiko ezberdin aurreikusten ditu. Alde batetik, behin-behineko erregimen bat eta, bestetik, behin betiko bat.

Behin-behineko erregimena Lege Organikoko 6. xedapen iragankorrean arautzen da eta indarrean egongo da bake-epaitegiak udal-mailako justizia-bulego bihurtzen diren momentutik (Lege Organikoko 1. xedapen iragankorrarekin harremanetan). Erregimen horrek, orokorrean, bake-epaitegi edo bake-epaitegien elkargoetan lan egiten duten pertsonak —bake-epailea salbuetsiz— automatikoki udal-mailako justizia-bulegoetan integratzen ditu (6.2 xedapen iragankorra). Zehazki, bake-epaitegien plantilla organikoa, zein bake-epaitegiei laguntza zuzena ematen zieten bulego judizialeko lanpostuen zerrendaren barne zeuden langileak, automatikoki integratuko dira udal-mailako justizia-bulegoen lanpostuen zerrendan. Lanpostuen zerrenda, dagokion negoziazio sindikalaren ostean, 1/2025 Lege Organikoa indarrean sartzen denetik, asko jota, hiru hilabeteko epean onartuko da —eta, horrek, behin betiko erregimena aplikatzea ekarriko du—. Nolanahi, zerrenda egin arte, justizia-bulegoen idazkaritza, momentura arte, bake-epaitegiaren edo elkargoaren idazkaritza okupatzen zuen pertsonak okupatuko du.

Behin betiko erregimena, asko jota, 1/2025 Lege Organikoa hiru hilabete indarrean egon ondoren ezarriko da. BJLOren 439 quinquies artikulua behin betiko langile-plantilla ezartzeko jarraitu behar diren elementuak jasotzen ditu eta, behin-behineko erregimenak ez bezala, udal-mailako justizia-bulegoak justizia-bulegoen elkargoetatik bereizten ditu. Hortaz, egoera edo antolaketa zein den aintzat hartuz —justizia-bulegoak edo horien elkargoak—, elementu batzuk edo beste batzuk bete beharko dira. Oro har, eraentza hau bake-epaitegientzat ezartzen zen arauketaren oso antzekoa da. Alegia, 7.000 biztanletik gorako udalerrietan edo haien lan-kargak justifikatzen dituzten udalerrietan³¹, justizia-bulegoak Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden kidegoko funtzionarioek osatuko dute. Hots, pertsona teknikoek. Bestalde, udal-mailako justizia-bulegoaren idazkaritza Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko kide batek hartuko du, betiere lanpostuen zerrendari jarraikiz (BJLO 476 i) art.). Eraginkortasuna bilatzeko grinaz, baita ere, justizia-bulegoko zenbait lanpostu bulego judizialeko lanpostu batzuekin bateragarriak izatea ahalbidetzen du³².

30. Hala ere, legegileak jakin badaki bake-epaitegien eraldaketak ez duela urte naturalarekin kointzidituko. Horrexegatik, Lege Organikoak 13. xedapen iragankorrean jasotzen du udalen kredituak proportzionalki aplikatuko direla, bake-epaitegien biziraupen-epearen arabera.

31. Justizia Ministerioak edo justizian eskumena daukaten autonomia-erkidegoek zehaztuko dute zein udalerri edukiko duten osaera hau.

32. Kasu horretan, udal-mailako justizia-bulegoen lanpostuen zerrendak adierazi beharko du bulego judizialeko zein lanposturen zereginekin bateragarri diren (BJLO 439 quinquies, BJLO 521.3E eta 436.5 artikuluekin harremanetan).

Justizia Ministerioak edo dagokion kontseilu autonomikoak ahalmena daukate, haien eskumen eta esparruen barne, udal-mailako justizia-bulegoen elkargoak sortzeko. Gogorarazi beharra dago elkargo hauen funtzioa dela mugakideak diren eta barruti judizial beraren parte diren herrietako pertsonen zerbitzuak eskaintzea. Elkargoak sortu nahi badira, beharrezkoa da adieraztea elkargoko zein herri izango den haren buru, elkargoan zerbitzatuko duen langileria Justizia Administrazioari langileria izango delako eta herri hori izango delako elkargoaren buru (BJLO 521. art.). Langile horiek beren zerbitzuak eskainiko dituzte elkargoa osatzen duten justizia-bulego guztietan, Justizia Ministerioak edo kontseilu autonomikoak ezarritako eraentzari jarraituz³³. Hala ere, elkargoa osatzen duten justizia-bulegoek ez badaukate Justizia Administrazioan lan egiten duten langilerik, udalek funtzionarioak edo lan-harremana daukaten pertsonak izendatuko dituzte. Haien faltan, udalek pertsona egoki bat izendatuko dute Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten duten kidegoei laguntzeko. Pertsonaren egokitasuna neurtzeko irizpideak elkargoa sortzen duen arauak finkatuko ditu. Alabaina, edozein kasutan, pertsona horrek adin nagusikoa izan behar du eta ezin daiteke sartuta egon kargu publiko bat izatea eragozten duen kausa batean. Azkenik, muga bezala, araudiak pertsona egokiari debekatzen dio Justizia Administrazioari langileei erreserbatzen zaizkien zereginak izatea (BJLO 439 quinquies art.).

Bukatzeko, erreferentzia egin beharra dago Justizia Administrazioari langileriarik gabe funtzionatzen duten bake-epaitegiak dituzten herriei, bai eta bake-epaitegien elkargoetako kide ez diren udalei ere. 1/2025 Lege Organikoa indarrean sartu arte, epaitegi horietan, bake-epaileaz gain, udalak izendatutako pertsona egoki bat aritzen zen. Bake-epaitegi horiek udal-mailako justizia-bulego bihurtzen direnean, legeak aurreikusten du udal hauetan justizia-zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren koordinazio- eta laguntza-zereginak barruti judizialeko bulego judizialak beteko dituela eta bulego judizialak beteko dituela Justizia Administrazioari Kidego Orokorretako funtzionarioei erreserbatzen zaizkien zereginak (1/2025 Lege Organikoren 12. xedapen iragankorra).

3.4. Funtzioak edo eskaintzen dituzten «zerbitzuak»

Esan bezala, udal-mailako bulegoak botere jurisdikzionalik ez duten administrazio-organoak direnez, zerbitzu administratiboak eskaintzen dituzte. Orain arte, bake-epaitegiek izan dituzten zerbitzu administratiboak eskaintzeaz gain, beste batzuk ere izango dituzte, gizartearen beharrei hobeto erantzuteko asmoz.

Zehazki, legeak momentuaren arabera zerbitzu ezberdinak eskaintzea aurreikusten du. Izan ere, justizia-bulegoek hasieratik zerbitzu batzuk eskainiko dituzte eta, etorkizun batean, ahal denean, —zehazki, «erreminta informatikoen eta baliabide material edo instrumentalen garapenak ahalbidetzen duenean»— beste batzuk. Beraz, bi abiaduratan itxuratzen dira udal-mailako justizia-bulegoen zerbitzuak.

Aurrekoari eutsiz, hasiera batetik, udal-mailako justizia-auzitegi orok hiru zerbitzu eskainiko ditu (BJLO 439 quater art.):

³³. Aurreko eraentzaren berrikuntza edo moldaketa bat denez gero, uste dugu elkargo hauek herritarrei arreta eskainiko dietela aurreikusitako egunetan besterik ez.

- 1) Udaleko bake-epailea lagunduko dute legeak aurrezagutzen dizkion funtzioak egikaritzeko: gure iritziz, justizia-bulegoko idazkaritza okupatzen duen pertsonak beteko ditu bake-epailearen ardura diren arlo zibileko eta zigor-arloko gatazketan Justizia Administrazioako Letratuak egin beharko lituzkeen zereginak. Udal-mailako justizia-bulegoko gainerako langileek —kudeaketa, izapidetzea— eta laguntza-lanetan aritzen direnek espedientearen prestaketa eta garapenerako beharrezkoak diren zereginetan lagunduko dute —jakinarazpenak egin...—. Era berean, justizia-bulegoaren euskarriak antzera funtzionatuko luke gainerako zereginetan ere —arlo zibileko eta zigor-arloko adiskidetzeean, zigor-arloko prebentzio edo delegazio bidezko eginbideetan, besteak beste—.
- 2) Zerbitzuak eskaintzen dituen udalerrian bizi diren pertsonen jakinarazpen prozesalak praktikatzeko, betiere, ezin izan bazaie elektronikoki jakinarazi: Ordura arte, bake-epaitegiek betetzen zuten funtziorik garrantzitsuena izan da. Hala ere, 6/2023 Errege Lege Dekretuak behin espainiar justiziaren digitalizazioa ezarri duenez gero, zerbitzu hau azken aukera edo *ultima ratio* gisa ezartzen da. Nolanahi, gure aburuz, zerbitzu honek agerian jartzen du legegileak duen konfiantza falta baliabide elektronikoetan eta justizia digital berrian.
- 3) Erregistro Zibilaren bulego kolaboratzaile moduan, legeak aintzatesten dizkion zerbitzuak: Erregistro Zibilaren Legearen 5. xedapen gehigarriak, jada, 2011. urtean adierazten zuen bake-epaitegien idazkaritzak, bake-epaitegien laguntzaile zuzen bezala sortzen ziren unitate prozesalak edo *haien orde zitezkeen justizia-bulegoak* Erregistro Zibilarekin lankidetzan arituko zirela, erregelamenduan ezartzen zuten eran, funtzio zehatz batzuk betetz. Hurrengo funtzioak aurreikusten ziren: (a) eskaerak, aitorpenak edo formularioak, baita Erregistro Zibileko prozedurak izapidetzeko beharrezkoak diren beste dokumentu batzuk ere, pertsonalki jaso eta elektronikoki erregistratzea; (b) Erregistro Zibileko prozedurei buruzko gaiei buruz jendea informatzea; (c) haien zaintzapean dauden Erregistro Zibileko liburu fisikoetan erregistratutako eta elektronikoki ziurtatu ezin diren idazpenen ziurtagiriak ematea; (d) pertsonalki eskatutako idazpenen ziurtagiri elektronikoak ematea; (e) bizi-ziurtagiriak ematea; (f) erregelamenduz zehaztutako ebazpenik gabeko laguntza-ekintzak burutzea; eta (g) Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako beste edozein ekintza.

Udal-mailako justizia-bulegoek, baliabide material eta informatikoen ahalbidetzen duten neurrian, beste bost zerbitzu eskain ditzakete etorkizunean:

- 1) Udalerrian bizi diren eta bertan lan egiten duten edota haien lanbidea udalean egikaritzen duten pertsonen bidezko konferentzia edo beste telepresentzia sistemen bidez praktikatu beharreko prozedura-jardunbideak erraztea —adiskidetze eta borondatezko jurisdikzio espedienteetan interbentzioa barne—: deigarria da zerbitzu hauek erroldatutako herritarrei ez mugatzea eta bertan lan egiten duten pertsonen ere eskaintzea. Funtzio honek asko

errazten die herritarrei justiziarekin erlazionatutako ekintzak egitea. Hala ere, inbertsio ekonomiko handia galdatzen du udal-mailako justizia-bulego guztietan. Inbertsioak Justizia Ministerioak edo autonomia-erkidegoek egin behar dituzte. Beraz, posible da erakunde bakoitzak inbertsio ezberdinak egitea eta justizia-bulegoen artean egoera oso ezberdinak sortzea, aldi berean, herritarren berdintasun-printzipioa arriskuan jarritz (EK 1. art.).

- 2) Doako laguntza juridikoaren eskubidea aitortzeari dagokionez, eskubidea aitortzeko eskaerak jaso, horiek abokatuen elkargoetara bidali eta pertsona interesatuei jakinarazpenak eta kudeaketa egiteko laguntza ematea: eskubidea aitortzeko prozedura administratiboa denez gero, justizia-bulegoen izaerarekiko egokia da zeregin hauek aintzatestea.
- 3) Justizia Ministerioko Lurralde Gerentziei edo justizia-arloko eskuduntza duten autonomia-erkidegoetan kokatzen diren antzeko organoei herritarrok zuzendutako eskaera edo kudeaketa-eskariak jasotzea, hala nola azken borondateen ziurtagiri-eskaera, zigor-aurrekariak, izaera sexualeko zigor-aurrekariak, heriotza-aseguruen kontratuak eta aseguru-kontratuaren inguruko informazio-oharrak. Dokumentuen apostillak ere egiten dituzte, salbu Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak emandakoak badira. Era berean, Justizia Ministeriora eta gainontzeko estatu, erkidego eta tokiko administrazio-organismo publikoei zuzendutako dokumentuen bilketa eta bidalketa.
- 4) Tokian sortutako gatazkak ebazteko bitarteko egokien unitateekin kolaboratzea³⁴, dagokion administrazio prestazionalarekin lankidetzan.
- 5) Jurisdikzio-autoritateei eta Justizia Administrazioko langileei —epaile, magistratu, fiskal, Justizia Administrazioko letratu eta haren zerbitzupeko pertsonalari— instalazioak ahalbidetzea noizbehinka haien lana burutu ahal izateko, haien lanpostuekin telematikoki komunikatuz.
- 6) Administrazio Publiko ezberdinen arteko kolaborazio-akordioetan ager daitezkeen gainontzeko zerbitzuak: azken klausula honek posible egin dezake justizia-bulegoei Justizia Administrazioarekin zerikusia ez duten zerbitzuak eskaintzen hastea, haien helburua eta izatearen arrazoia kolokan jarritz eta justiziaren independentzia kaltetuz. Bestalde, kolaborazio-akordioek udal-mailako justizia-bulegoek zerbitzu ezberdinak eskaintzea eragin dezake, herritarren berdintasun-printzipioa urratuz (EK 1. art.).

4. Bake-epaileen eraentza

4.1. Jurisdikzio-ahalmena duten auzitegi gabeko pertsona fisikoak: estatutu juridikoa eta izendapenak

Nahiz eta urte luzez bake-epaileek kritika ugari jaso izan dituzten, bereziki, haien formazio juridiko falta eta haiek izendatzeko era zela eta —arau orokorrez, udalek izendatzen zituzten eta, salbuespenez, Justizia Auzitegi Nagusiek meritu-lehiaketa bitartez (Madrid, 2024, 7. eta 8. or.)—, 1/2025 Lege Organikoak haiek

³⁴. Gaztelaniazko, *unidades* MASC.

mantentzearen alde egin du, haien udalean botere jurisdikzionala errekonozituz. Horretarako, BJLOren 99. artikulua moldatu da. Xedapenaren idazkera berriak zera dio: «Instantziako auzitegirik ez dagoen herri bakoitzean bake-epaile bat egongo da, dagokion muga barnean jurisdikzioa izango duena». Era horretan, esan bezala, bake-epaileek gainerako auzitegiekin batera botere jurisdikzionala daukate (BJLO 26. art.).

Bake-epaileen estatutu juridikoak ez du aldaketarik jasan, nahiz eta haren ezaugarri batzuk kritikatuak izan diren eta moldatzeko proposamenak egin diren³⁵. Berdin jarraitzen dute BJLOren 101-103. artikuluek —kargura sarrera, formazioa, karguaren ezaugarriak, eskubide eta betebeharrak...—³⁶. Beraz, printzipioz, Zuzenbidean aditu ez diren bake-epaileek kolokan jar ditzakete EKren 117. artikuluek autoritate jurisdikzionalari galdatzen dizkion independentzia, erantzukizuna eta legezarekiko mendeotasuna. Printzipioz konpontzen ez duela deritzogu BJLOren 25. xedapen gehigarria dela eta. Xedapen horren arabera, JANen Gobernu Salek egin beharreko izendapenei kalterik egin gabe, izendapenak egingo dira bake-justizian edo gertuko justizian eskuduntza daukaten autonomia-erkidegoetan autonomia-estatutuen xedapenei jarraikiz. Hala, legegileak Espainian bake-epaileak izendatzeko sistema bikoitza eratzea ahalbidetzen du: batetik, bake-justizian edo gertuko justizian eskuduntza daukaten autonomia-erkidegoek ezartzen dutena eta, bestetik, gainontzeko Estatuarentzat ezarritakoa. Eskuduntza daukaten autonomia-erkidegoen artean Katalunia (108. art.)³⁷, Andaluzia (152. art.)³⁸ eta Kanaria uharteak (92. art.)³⁹ aurki ditzakegu eta, baita Extremadura ere (49.2.g) art.)⁴⁰, eskuduntza hori erreserbatzen baitu. Ondorioz, pentsa dezakegu autonomia-erkidego horiek ahalmena izan dezaketela bake-epaileei Zuzenbidean formakuntza eskatzeko, nahiz eta Estatuko araudiak ez galdatu (BJLO 102. art.).

35. Esate baterako, izendapenak egiteko modua, bake-epaileei galdatzen zaizkien formakuntza, merituak edota dedikazioa eta ordainsaria aldatzea proposatu da. Ikus, adibidez, Madril, 2024, 33-34. or.

36. Bake-epaileen estatutu juridikoa Ordeñana, 2013 (195-202. or.) artikuluan lantzeko aukera izan genuen.

37. 6/2006 Lege Organikoa, uztailaren 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutua erreformatzen duena.

38. 2/2007 Lege Organikoa, martxoaren 19koa, Andaluziako Autonomia Estatutua erreformatzen duena. Bere 152. artikuluan honako hau ezartzen du: «1. Andaluziako Gobernuak bake-justiziaren gaineko eskumena du Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritako baldintzetan. Baldintza berberen arabera, Andaluziako Justizia Kontseiluari dagokio bake-epaileak izendatzea. Andaluziako Gobernuari dagokio, baita ere, haien ordainsarien ardura eta haien funtzioak betetzeko beharrezko bitartekoak ahalbidetzea. Idazkaritzak sortzeaz eta langileez hornitzeaz ere arduratzen da. 2. Andaluziako Gobernuak, zehaztuko diren herrietan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, gertuko justizia-sistema bat ezar dezake gatazka txikiak azkar eta eraginkortasunez konpontzeko».

39. 1/2018 Lege Organikoa, azaroaren 5koa, Kanariar Uhartetako Autonomia Estatutua erreformatzen duena. Bere 92. artikuluan honako hau dio: «Bake eta gertuko justizia. 1. Kanariar Uhartetako Autonomia Erkidegoak bake-justiziaren gaineko eskumena du, Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritako baldintzetan. Kanariar Uhartetako Autonomia Erkidegoari dagokio, halaber, haien ordainsarien ardura eta haien funtzioak betetzeko beharrezko bitartekoak ematea. Idazkaritzak sortu eta hornitzeaz ere arduratzen da. 2. Kanariar Uhartetako Autonomia Erkidegoak, zehaztutako herrietan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, tokiko justizia sistema bat ezartzea eska dezake gatazka txikiak azkar eta eraginkortasunez konpontzeko».

40. 1/2011 Lege Organikoa, urtarrilaren 28koa, Extremadurako Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua erreformatzen duena.

4.2. Funtzioak

Aurreko funtzioei eutsiz, funtzio jurisdikzionalak⁴¹, zein judizioz kanpokoak, aintzatesten zaizkio bake-epaileari. Zehazki, 1/2025 Lege Organikoa indarrean sartu aurretik gertatzen zen era berean, bake-epaileek arlo zibilean eta zigor-arloan eskuduntzak dituzte.

Arlo zibilean, BJLOren 100.1. artikuluari jarraikiz, legeak aurreikusten dizkion prozesuetako gatazkez lehen auzialdian arduratzeko eskumena izango du, haiek ebatziko ditu eta haien exekuzioaz arduratuko da. Era berean, legeak aurreikusten dizkion gainerako funtzioak beteko ditu. 1/2025 Lege Organikoa, Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasuna areagotu nahian, gaztaka juridiko pribatuak zenbatekoagatik ebatzeko eskuduntzak handitu dizkio bake-epaileari. Zehazki, PZLren 47. artikuluko berriak adierazten duenez, 150 euro gainditzen ez dituzten hitzezko prozesuaren bitartez ebatzi beharrezko gatazka zibilez arduratuko da bake-epailea, betiere PZLren 250.1 artikuluko afera ez bada. Hots, prozesu mota ez baldin bada materiarengatik zehazten, baizik eta zenbatekoarengatik (PZLren 250.2 artikuluegatik). Lehen, 90 euro arteko gatazkez bakarrik arduratu zitekeen. Eskuduntza honetaz gain, 10.000 euro baino gutxiagoko borondatezko jurisdikzioko arlo zibileko adiskidetze-espedienteaz arduratzeko eskumena dauka bake-epaileak. Berrikuntza legeaz, PZLren 47. artikulua, baita ere, nahiz eta zigor-arloko gatazka izan, ZPLk 804. artikuluan aipatzen dituen adiskidetze-eginbideez arduratzeko eskumena izango du, betiere egitateak bake-epaileak bere funtzioak garatzen dituen herrian gertatu badira eta errekeritutako pertsonak bere egoitza herri horretan badauka.

Aurrekoaz gain, zigor-arloan, BJLOren 100.2 artikulua bake-epaileei legeak zehazten dituen zigor arau-hauste arinez lehen auzialdian arduratzeko eskumena aitortzen die, prebentzio edo ordezkari-tasaz lagatzen zaizkien zigor-eginbideetan parte hartzeko eskumenarekin eta beste legeak aitortzen dizkieten funtzioekin batera. Hala ere, ZPL berria onartzeko zain gaudenez gero, *lege data*, bake-epaileak salaketak jasotzeko eskumena besterik ez du izango (ZPL 250. art.). Zigor arau-hauste bat gertatu dela dakienetik, dagokion Instrukzioko Auzitegiari prebentzio-diligentziak jakinarazi beharko dizkio (ZPL 308. art.) eta, horrekin batera, epailea errekusatzeko aukera ematen zaio (ZPL 63 f) eta 68 j) art.). Beraz, BJLO berriak aukera ematen du bake-epaileei zigor-arloan eskuduntza gehiago esleitzeko eta, beraz, ZPL berria eta ZK aldatzeko.

Zigor-arlotik eta arlo zibiletik kanpo, bake-epaileek tradizionalki hauteskundeetan laguntzeko funtzioa izan dute. Alabaina, 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Erregimen Orokorriari buruzkoa —HEOL— aldatu denez, bake-epaileak, erregimen berrian, ezingo dira Tokiko Hauteskunde Batzordearen parte izan. Eta, etorkizunera begira, hauteskunde-gutun zaintza udal-mailako justizia-bulegoen zeregina izatera pasatuko da (HEOL 101.1 eta .4 art.).

41. Gogoratu beharra dago BJLOren 24. xedapen gehigarriak adierazten duela, behin udal-mailako justizia-bulegoak sortuta, bake-epaileek zituzten ahalmen jurisdikzionalak egindako erreferentzia oro bake-epaileei egiten zaizkiela ulertu behar direla.

4.3. Bake-epaileen dependentzia udalekiko

Eredu berrian, bake-epaileak dagokion udalaren mendeko izaten jarraituko du, udal-mailako justizia-bulegoek baliabideak, espazioak eta laguntza eskainiko dizkiotelako (BJLOren 439 ter eta quater 1 a) artikulua). Puntu honetan, beraz, legegileak ez du kontuan hartu aspaldidanik errepikatu den kritika bat: epaileek udalekiko duten mendekotasuna, eta horrek dakarren independentzia falta.

5. Ondorioak

Orain arte aztertutakoa kontuan hartuta, uste dugu 1/2025 Lege Organikoak gertuko justizian eragin nahi duen aldaketa txikia izango dela eta urte batzuen ondoren haren aldaketa eskatuko dela, batik bat, aspaldidanik oso kritikatuak izan diren ezinbesteko elementuak konpondu ez dituelako eta Legea interes politiko hutsen ondorioz gainditu delako.

Udal-mailako justizia-bulegoek gertuko justiziaren *administratibizazioa* islatzen dute, administrazio-organo hauek organo jurisdikzionalak ordezkatu dituztelako. Hasieran adierazten genuen eran, modelo berrian, bake-epaitegietatik udal-mailako justizia-bulegoak eta bake-epaileak sortu dira, administrazio-jardunak eta jardun jurisdikzionalak, hurrenez hurren, eskaini edo egikaritu ditzaten. Horrek zera galdetzeraz bultzatzen gaitu: Justizia Administrazio eraginkorragoa sortzea lortuko du bake-epaitegitik bi elementu sortzeak? Alegia, eraginkorragoa izango da justizia-sistamarako justizia-bulego bat eta bake-epaile bat izatea erakunde bakar bat izatea baino?

Udal-mailako justizia-bulegoak bake-epaitegien bilakaera direnez gero, herritarrei justizia gerturatzeko sortu direla argi dago, baina, izaera jurisdikzionalaren galera alde batera utziz, gainerako ezaugarriak ia berdin mantendu dira —kokalekua, azpiegitura, udalarekiko mendekotasuna, pertsonala eta funtzioak—. Zaila da aldaketa handirik ez dakarren modelo batek aurrerapenak ekartzea. Hori dela eta, ez daukagu eredu berriarekiko ikuspegi oso positiborik. Hala ere, jakin badakigu, praktikak erakutsiko digula ea erreformak Justizia Administrazio jasangarriagoa eta eraginkorragoa ekarriko ote duen edo ez.

Unitate administratibo hauei dagokienez, bereziki azpimarragarria da zelan arautu den haien zerbitzuen katalogoa, hura handitu den arren, zerbitzu askoren eskaintza baliabide materialek baldintzatzen dutelako. Gure ustez, arriskutsua da funtzioak baliabideetara lotzea bi arrazoi direla medio. Alde batetik, justizia ez delako aurrekontuek bereziki kontuan hartzen edo zaintzen duten esparru bat —ez estatu-mailan, ez erkidego-mailan— eta, bestetik, udal-mailako justizia-bulegoak haien udalen egoera ekonomikoaren mendeko direlako. Gogoratu beharra daukagu aurrekontuetan ezartzen den kredituaren zenbatekoa herriaren biztanleriaren arabera dela. Hortaz, arauketa honen ondorioz, posible izango da herri txikietan eta *hustutako Espainian* bizi diren pertsonak —bereziki, bretxa digitala pairatzen duten adindun asko daukatenez— zerbitzu gutxiagoren onuradun izatea eta, aitzitik, legeak dituen xedeen kontra, instantziako auzitegiak dauden hirietara joan behar

izatea Administrazioarekin egin beharreko izapideak egin ahal izateko. Bi abiaduratan diseinatutako modelo honek ziurtasun-gabezia ikaragarria eragiten digu.

Aurrekoari estuki lotuta, udal-mailako justizia-bulegorik ez dagoen udalerrietan, araudiak aurreikusi du haiek izango lituzketen funtzioak bulego judizialek betetzeko *aukera* daukatela. Hots, ez ditu bulego judizialak behartu zerbitzu horiek eskaintzera. Malgutasun horrek, zalantzarik gabe, ziurtasun falta handia eragiten digu baita ere. Baina, aldi berean, zera azaleratzen du: legegileak garrantzi gabekotzat hartzen dituela justizia-bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuak. Uste hau egia bada, eta, hortaz, legegilearen aburuz zerbitzuak garrantzi gabekoak badira, zer etorkizun dauka modelo ezarri berriak? Gure ikuspuntutik, aspektu horrek agerian uzten du ereduaren sendotasun falta.

Justizia-bulegoak alde batera utziz, bake-epailea azken orduan bizirautea lortu duten epaitegirik gabeko figura da, gure sisteman ezezaguna izan den kontzeptu bat sortuz: epaitegirik gabeko epailea. Funtzio jurisdikzionala egikaritzeko dagokion udalak eta justizia-bulegoak lagundu dezakete, beraz, ezin daiteke ezeztatu udalarekiko mantentzen duen mendekotasuna.

Bake-epaileek aintzatetsita dituzten eskuduntzak ez dira ugariak eta ezin izango dira nabarmen areagotu haren izaera ez-teknikoak bere horretan jarraitzen baitu. Nahiz eta arlo zibilean ahozko epaiketak ebazteko eskumena 90 eurotik 150 eurora handitu, aldaketa horrek ez ditu bake-epaileak eraginkorrangoak egingo; izan ere, zenbatekoa ez zen epaileen jarduna txikia izatearen arrazoi bakarra, baizik eta lehen auzialdiko epaitegiek —egungo instantziako auzialdiek— ez zizkietela espedienteak edo demandak bidaltzen, batik bat, bake-epaileen formakuntza-gabeziak sortu zezakeen defentsa-gabezia saihesteko. Bestalde, zigor-arloan funtzio gehiago esleitzeko aukera aurreikusi den arren, eskumen-areagotzea etorkizuneko arauketaren menpe geratuko da (ZPL eta ZK berria).

Bake-epaitegien sorreratik agerian geratu da etengabea izan dela bake-epailea profesionalizatzeko desira. Hala ere, urteek ez dute lortu formakuntza eskakizun bat izatea. 1/2025 Lege Organikoak ez du Zuzenbidean gradua izatea galdatzen bake-epaile izateko. Alabaina, araudi berriak, zeharka, aukera ematen die gertuko justizian eta bake-justizian eskuduntza daukaten autonomia-erkidegoei hura betebeharrak edo meritu bezala ezartzeko. BJLOren 25. xedapen gehigarriak ahalbidetzen du estatutu bidez izendapenen inguruan arautzea. Nolanahi, aukera hori Konstituzioarekin bateragarria ote den —edo ez— hausnartzera bultzatzen gaitu, herritarrekiko desberdintasunak areagotu ditzakeelako.

Urte luzez bake-epaileak ez eraginkorrak izan badira, ez eraginkor izaten jarraituko dute, haien eraentza mantendu baita —formakuntza, betebeharrak, dedikazioa, erantzukizuna...—.

Talde parlamentario batzuen interes politiko hutsek ez lituzkete justizia eraldatzen duten legeak baldintzatu behar. Ez soilik arauaren ahultasuna agerian uzten dutelako, baizik eta, askotan, 1/2025 Lege Organikoarekin gertatu den bezala, ez dietelako errealitateari, gabeziei eta beharrei erantzun egokirik ematen. Argi

zegoen bake-epaileen ekarpena justizian txikia zela. Egoera honen aurrean, bi aukera zeuden: haiek ezabatzea edo, haiek mantentzea aldaketekin. Junts Per Catalunya-ren desirak lehen aukera uztea eragin badu ere, bigarren aukera hartu beharrean, hasierako abiapuntura bueltatzera kondenatu gaitu: figura ez eraginkor bat mantentzera. Argi dago ezin ditugula emaitza ezberdinak espero, behin eta berriz ekintza berdinak egiten baditugu. Beraz, ezin dugu espero bake-epaileen garrantzia areagotzea, behin eta berriz era berean arautzen baditugu eta ez baldin baditugu datuak, adituen kritikak eta esperientzia kontuan hartzen.

1/2025 Lege Organikoaren eragin praktikoa gertuko justizian zein den ikustear dago. Orokorrean, ereduaren abantaila nagusia da ahalbidetu nahi dela udal-mailako justizia-bulegoetan, herritik irten gabe, hainbat izapide egitea. Hala ere, benetan gizarteari justizia gerturatzeko eta hura errealitate bilakatzeko, ezinbestekoa da lurralde osoan baliabide materialak behar bezala bermatzea. Finantzaketa egokia nahitaezkoa da herritar guztiok zerbitzu berberetzat gozatzeko, kontuan izan gabe bizi garen herriaren biztanleria. Herri txikiek, besteak beste, zerbitzuak behar dituzte, haiek ez husteko. Eta, herri handiek, haien justizia-bulegoak edo bulego judizialak ez kolapsatzea, biztanleek kalitatez eta garaiz zerbitzuez gozatu ahal izateko. Labur esanda, udal-mailako justizia-bulegoek, haien elkargoek edota bulego judizialek bermatu behar dituzte, berdintasun-printzipioari jarrikiz, kalitatezko zerbitzu berdinak.

EAEn erreparatuz, 252 herri osatzen dute erkidegoa eta 9 instantziako auzitegi besterik ez da sortu. Hortaz, 243 udal-mailako justizia-bulego sortu beharko dira. 7.000 biztanletik beherako herriak oso ugariak dira EAEn (Bizkaian 85 herri (113tik)⁴², Araban 47 herri (51tik)⁴³ eta Gipuzkoan 58 herri (88tik)⁴⁴ daukate 7.000 biztanle baino gutxiago) eta biztanleriaren kontzentrazioa oso bestelakoa da probintzien artean. Bereziki Araba da aipagarria, haren biztanleriaren gehiengoa Gasteizen kokatzen delako eta gutxiengo bat herri oso txikietan barreiatuta dagoelako. Honek guztiak agerian uzten du gertuko justizia bermatzea ez dela *hustutako Espainia*rentzat soilik beharrezko. Euskal gizarteak, esate baterako, nahitaezkoa du gertuko justizia egokia bermatuta gera dadin lurraldean eta udal-mailako justizia-bulegoek legeak aurreikusitako zerbitzu guztiak bete ditzaten, nahiz eta, errepikatu, autonomia-erkidego ez *hustu* bat izan.

6. Bibliografia

Asencio Mellado, José María (2011). Los anteproyectos de Ley de Medidas de Agilización Procesal y de Creación de los Tribunales de Instancia. *Diario La Ley*, (7586).

Barona Vilar, Silvia (2023). Los tribunales de instancia 'trending topic' en la reforma de la organización judicial española. In José María Asencio Mellado eta Olga Fuentes Soriano (zuz.), *El proceso como garantía* (29-58. or.). Atelier.

42. https://www.eustat.eus/elementos/ele0011400/bizkaiko-biztanleria-barruti-eta-zentsu-sekzioen-arabera-sexuaren-adin-taldeen-eta-naziotasunaren-arabera/tbl0011435_e.html

43. https://www.eustat.eus/elementos/ele0011400/arabako-biztanleria-barruti-eta-zentsu-sekzioen-arabera-sexuaren-adin-taldeen-eta-naziotasunaren-arabera/tbl0011433_e.html

44. https://www.eustat.eus/elementos/ele0011400/gipuzkoako-biztanleria-barruti-eta-zentsu-sekzioen-arabera-sexuaren-adin-taldeen-eta-naziotasunaren-arabera/tbl0011434_e.html

- Barona Vilar, Silvia (2024). Los tribunales de instancia ¿entre Sísifo y la historia interminable? In Fernando Conde Jiménez eta Francisco López Simó (zuz.), *La eficiencia de la justicia a debate* (173-205. or.). Tirant lo Blanch.
- Damián Moreno, Juan (1986). *Los jueces de paz (estudio histórico y crítico)*. Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Flors Maties, José (2025). *Tribunales de Instancia, solución extrajudicial de controversias y reforma del proceso civil (L.O. 1/2025, de 2 de enero)*. Tirant lo blanch.
- Madrid Boquín, Christa Maria (2024). La justicia de proximidad en el umbral del cambio. La disyuntiva entre los Juzgados de Paz y las Oficinas de Justicia en los Municipios. *Revista General de Derecho Procesal*, (62).
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2012). Una patata caliente en la organización judicial española o sobre el futuro de la justicia de ámbito municipal (la llamada justicia de paz) en nuestro ordenamiento jurídico. *Consultor de los ayuntamientos y de los juzgados: Revista técnica especializada en administración local y justicia municipal*, (14), 1645-1668.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2013). ¿Qué va a ser de la justicia de paz en España?: una salida para los actuales jueces y juezas de paz de acuerdo con los nuevos tiempos. In Ixusko Ordeñana Gezuraga eta Katixa Etxebarria Estankona (zuz.), *Presente y futuro de la justicia de paz en el ordenamiento jurídico español* (187-208. or.). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2023). *La justicia de paz: nuevos tiempos, ¿nuevas (infra) estructuras? Disquisiciones ante la creación de las Oficinas der Justicia en los municipios en lugar de los Juzgados de Paz*. JB Bosh.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2025). La reina que sobrevive sin reino o de la Oficina de Justicia en el municipio sin (¿o con?) juez de paz. Lectura crítica de la «evolución» de los Juzgados de Paz implementada por la Ley Orgánica 1/2025 de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia. *Revista General de Derecho Procesal*, (66).
- Planchadell Gargallo, Andrea (2025). La oficina judicial adaptada a la nueva organización judicial y a las Oficinas de Justicia en los Municipios (servicios comunes). In Sonia Calaza López eta Ixusko Ordeñana Gezuraga (koord.), *Guía para la aplicación práctica de la LO 1/2025: Medidas de eficiencia procesal* (123-139. or.). Aranzadi La Ley.
- Sánchez Morón, Miguel (2001). El pacto de Estado para la reforma de la justicia. *Justicia administrativa: Revista de derecho administrativo*, (13).
- Vizcaino Pérez, Vicente (1784). *Tratado de la jurisdicción ordinaria para jurisdicción y guía de alcaldes de los pueblos de España*. Madril.

